



## **ORDENANTZA 12. ZK**

### **AGURAINGO UDALA   ARABAKO LURRALDEA**

### **AGURAINGO UDALERRIKO INDUSTRIA SEKTOREA SUSTATU ETA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak, bere eskumenak baliatuz, era guztietako jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak asetzen laguntzeko. Lege-testu bereko 72. artikuluan ezartzen denez, toki-korporazioek elkartekideen garapena bultzatuko dute, auzotarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko.

#### **XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1º: Artikulua**

Ordenantza honen helburua Aguraingo Udalaren eremuan azpibatzerdeak emateko irizpideak eta prozedura egituratzea eta bideratzea da, helburu batzuk zehazteko eta herritarrei, baldintza berdinetan, prestazio horiek eskuratzeko aukera bermatzeko, industria-sektorea sustatu eta garatzeko.

##### **2º: Artikulua**

Dirulaguntza izango da Udalbatzak ematen duen edozein zuzeneko edo zeharkako laguntza, ekonomikoki balioetsi daitekeena, Udalaren kontura.

##### **3º: Artikulua**

Dirulaguntza emateko, arau hauek hartuko dira kontuan:

1. Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, ordenantza honetan kontrakorik ezartzen ez bada.
2. Ezin izango da arrazoitzat aurkeztu lehenago ere jaso izana.
3. Ez dute inondik inora gainditu azenengo aurenkontuaren kitapenaren %2.



4. Diru laguntza ezin izango da handitzeko edo berrikusteko eskatu.

#### 4º: Artikulua

Diru-laguntzak liberalitate hutsez ematen dituzten erabakiak baliogabetu egingo dira.

### **ESKATZAILEEN BALDINTZAK**

#### 5º: Artikulua

1. Aguraingo industrigunean industri berriak sortzeko edo jadanik daudenetan, hedatzeko obrak egiteko inbertsioak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridikoek. Aipaturiko inbertsioak enpresa berriak edo jadanik daudenak hedatzeko diren heinean, elbarrituek beteko dituzten lanpostuak etengabe sortuko dituzte.

Lanpostua, denbora mugagabekoa eta egun osoko lanegunekoa izango da, eta berori, Aguraingo Kuadrileko erroldan eta bertan bizi den langile batek beteko du. Berorrek, jadanik dauden enpresetako langile-kopuruaren gehikuntza garbia ekarriko du eta sortu berri diren enpresetan berriz, lanpostuen sorrera.

Langile-kopuruaren gehikuntza garbia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko Langileen Estatutuak biltzen dituen 8/80 Legeak arautzen duen aplikazio eremutik salbuetsita gelditzen diren erlazioak.

2. Ez dute dirulaguntzik jasoko, aurretik ezarritako eskakizunak bete arren, honako akordioa indarrean sartu baino urte bete aurretik edo berori indarrean egon den bitartean, enplegua erregulatzen ari direnek edo ordainezintasun-aitorpena egin dutenek.

3. Halaber, ez dute dirulaguntza jasoko, Udalaren iritziz, jadanik dagoen enpresa baten jarraipena den enpresa eskatzaileek, beti ere, aurreko lan-kontratuak ezeztatu gabe izanik eta era berean, objektu eta pertsonenei buruzko datuak ematen badira.

4. Ez dituzte jasoko honako laguntzak, lizentziarik gabeko obrak egin dituztenek.

5. Eskatzaileek dituzten zor guztiak ordainduta izan behar dituzte, besteak beste, obligazio fiskalak, Administrazio Publikoari ordaindu beharreko kanonak eta kuotak, bestelako entitateei ordaindu beharrekoak eta era berean, dagokien probetxamenduak arautzen dituztenei ordaindu beharrekoak.



## DIRU LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN JARDUERAK

### 6º: Artikulua

Aguraingo Udaleko eremuan egindako inbertsio-obrek dirulaguntza jasoko dute, beti ere, berori eskatu den urte berean egiten badira.

### 7º: Artikulua

Ez dute diru laguntzarik jasoko:

- a) Udallerriaren esparrutik kanpo egiten diren jarduerak.
- b) Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, e.a.)
- c) Ondasun higikor eta higiezinak eskuratzeak.
- d) Instalazioak eskuratzeak

### 8º: Artikulua

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ondoko taulan zehazten den aurrekontu babesgarriaren portzentaia izango da:

Inbertsioaren aurrekontua	Kontrataturako elbarritu-kopurua		
	1 - 4	5 - 9	10 en adelante
30.050,61 € arte	0,25%	0,50%	0,75%
60.101,21 € arte	0,30%	0,60%	0,90%
60.101,21 eta 150.253,02 € bitartean	0,27%	0,45%	0,75%
150.253,02 eta 300.506,05 € bitartean	0,27%	0,45%	0,75%
300.506,05 eta 601.012,10 € bitartean	0,21%	0,45%	0,60%
601.012,10 eta 1.202.024,20 € bitartean	0,21%	0,30%	0,60%
1.202.024,20 € tik gora	0,21%	0,30%	0,45%



## **PROCEDIMIENTO DE SOLICITUD**

### **9º: Artikulua**

Udalak Osoko Bilkuran, urteko Aurrekontuan ohiko gastuen % 1a gainditzen ez duen kopurua finkatu egingo du, hain zuzen, dirulaguntza jasotzen duten jardueri zuzendua.

### **10º: Artikulua**

Aurreko 5. artikuluan aipatzen diren eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Dirulaguntzen eskakizuna Udaletxean egingo da ondokoak zehaztuz: izena edo elkarte-izena, enpresa eskatzailearen helbidea, langileak hartzeko egin eta aurrikusi diren inbertsioak, langile-kopuru garbiaren gehikuntzak, lantokiaren zehaztasunak, enpresaren langile-kopurua eta era berean, Gizarte Segurantza edo Ogasunaren obligazio ekonomiko eta lanekoen gaineko aitorpenak aurkeztu izanaren ziurtagiria.
2. Dirulaguntza eskatu eta handik hiru hilabetera, Udalak erantzunik ematen ez badu, dirulaguntza-eskakizuna gaitziritzi dela ulertuko da.
3. Aldiz, Udalak eskakizuna onestea ebazten badu, ondoren zehazten direnak aurkeztu beharko dira, berorren jakinarazpena jaso eta hogeita hamar eguneko epearen barruan:
  - a) Langileen kontratuak.
  - b) Langileen Gizarte Segurantzako altak.
  - c) Enpresaren konpromezua, dirulaguntza eman eta ondoren bi urteetan enplegu-maila mantentzeko.
4. Adierazitako bi urteetan, langile-kopurua murrizten bada, enpresak beste langile batzuk kontratatu beharko ditu, beti ere, honako Ordenantzaren 5. artikulua bere 1. atalean ezarritako baldintza berdinetan.
5. Udalaren iritziz, diru-laguntza jaso duen enpresak honako akordioaren edozein eskakizun betetzen ez badu, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko du, bidezkoak diren ekintza



6. Obraren proiektua edo egingo den obraren aurrekontu zehatza.

#### **11º: Artikulua**

Aurreko artikuluan aipatzen den dokumentazioa udal erregistroan aurkeztuko da inbertsioa egin aurretik.

### **DIRU LAGUNTZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

#### **12º: Artikulua**

Udalaren osoko bilkurak finkatzen dituen irizpide berariazkoek gain, honako irizpideak oinarrizkoak izango dira diru-laguntzak emateko:

- Jarduerak industriaren ikuspuntutik duen interesa.
- Aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten industriei laguntzea.

#### **13º: Artikulua**

1. Hirigintzako informazio batzordeak eskabideak aztertu eta ebazpen proposamena egingo du. Ebazpena egin aurretik, ea nahikoa kreditu badagoen zehaztuko da txosten batean, eta udal teknikoak obrak hirigintzako araudiarekin bat datozen aztertuko du txosten batean.

2. Udalbatzaren osoko bilkurak ebatziko du.

### **ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

#### **14º: Artikulua**

Diruz laguntzen diren jarduerak Udalak ezartzen duen epeen barruan egin beharko dira.

#### **15º: Artikulua**

Ematen diren diru-laguntza guztietan, obrak udalerraren hirigintzako legeriaren menpe egongo dira, eta legezkoak izan beharko dute, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregelamenduaren arabera.



#### **16º: Artikulua**

Emandako diru-laguntzen hartzailea ezin izango da aldatu.

#### **17º: Artikulua**

Jarduera baterako diru-laguntza eskatze hutsak ordenantza honetan eta diru laguntzak esleitzea arautzen duten oinarrietan zer jartzen duen jakitea eta onartzea dakar berarekin.

#### **18º: Artikulua**

Ordenantza honetan jasotako betebeharrak eta erabakiak ez betetzeak diru-laguntza bertan behera uztea ekarriko du.

### **JUSTIFIKAZIOA ETA KOBRANTZA**

#### **19º: Artikulua**

Para percibir las subvenciones concedidas de acuerdo con las prescripciones de esta Ordenanza, es preciso haber realizado la inversión subvencionada y presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

1. Diru-laguntza ordaintzeko eskaera. Alkateari bidaliko zaio, eta transferentzia zein kontu korrontetan egin behar den adieraziko da.
2. Obra-proiektua aurkeztea lizentzia lortzeko beharrezkoa izan denean, obraren azken egiaztapena eta GOKA jardueren espedientean finkatzen diren neurri zuzentzaileak (halakorik badago) aurkeztu beharko dira.
3. Obrak proiekturik behar ez duenean, faktura xehekatua aurkeztu beharko da, eta, horrelakorik ez badago, udal teknikariaren balorazioa.

#### **20º: Artikulua**

Aurreko artikuluan aipatutako fakturek honelakoak bete beharko dituzte:

1. Jatorrizkoa izatea eta idazkariak konpultsatutako fotokopia.
2. Diru-laguntza ematen den urteko data izatea.



3. Diru-laguntza jaso duenaren nortasun agiria edo identifikazio fiskaleko zenbakia.
4. Enpresa hornitzailearen zigilua eta izenpea edukitzea.
5. Eskaera egiterakoan aurkeztutako aurrekontuarekin bat etortzea.

#### **21º: Artikulua**

19. artikuluan aipatu den dokumentazio justifikagarria obra edo jarduera egin eta handik hogeita hamar egun igaro aurretik aurkeztuko behar da, eta onarpena eta ordainketa egitea alkateari egokituko zaio. Alkateak diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu dezake, gastuak hasieran kalkulaturakoak baino txikiagoak baldin badira.

### **AZKENENGO XEDAPENA**

Ordenantza honek 21 artikulua ditu eta azken xedapen bat, eta haren testu osoa behin betiko onartu eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren hasiko da indarrean, apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarota.

Aguraingo udalerriko industria-sektorea sustatzeko eta garatzeko diru laguntzak arautzen duen ordenantza behin-betiko onartu zen, 2000ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Vº Bº  
ALKATEA

IDAZKARIA